

**Ariketa hau test motako jarduera bat da.  
Galdera bakoitzak 3 erantzun posible ditu, eta  
bakarra da zuzena.**

1. Zenbat enplegatu publiko mota daude?

a) Hiru mota: karrerako funtzionarioak, lan-kontratuko langileak eta behin-behineko langileak.

b) Lau mota: karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, lan-kontratuko langileak eta behin-behineko langileak.

c) Lau mota: karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, lan-kontratuko langileak eta administrazio-kontratudunak.

2. Oposizio bat gainditzea lortu duen pertsonak honelako plaza bat betetzen du:

a) Karrerako funtzionarioa

b) Langile lan-kontratudunak

c) Behin-behineko langileak

3. Nor da politikarien lan-laguntzailea?

a) Karrerako funtzionarioa

b) Lan-kontratudun langilea

c) Behin-behineko langilea

4. Lanpostu-deialdi bateko betekizunak berdinak al dira beti?

a) Bai, ezin dira aldatu.

**b) Ez.**

c) Bai, beti dira 8 baldintza dira.

5. Zer aurkituko duzu edozein hautaketa-prozesutan?

a) Udalerri bereko pertsonak.

**b) Lehiakortasun handia.**

c) Kultura-ekitaldiei buruzko informazioa.

6. Hauek dira merezimenduak:

**a) Zenbait gaitasunen aitortza.**

b) Zeregin bat egitean gertatzen diren gauzak.

c) Zeregin jakin batzuk behar bezala egitea.

7. Behin-behineko langileen lan-baldintzak:

a) Edozein enplegatu publikok dituen berberak dira.

**b) Bitarteko funtzionarioen berberak dira.**

c) Karrerako funtzionarioen berberak dira.

8. Zer da deialdi bat?

- a) Udalerri bateko bizilagun guztiak ateratzen diren agiria.
- b) Udalaren datuak eta jarduera ekonomikoak jasotzen dituen dokumentua.
- c) Udalak modu ofizialean lanpostuak bete behar dituela jakinarazteko agiria.

9. Enplegatu publiko hauek lanpostu finkoa dute:

- a) Bitarteko funtzionarioak.
- b) Karrerako funtzionarioak.
- c) Funtzionario guztiek lanpostu finkoa dute.

10. Ezagutza- eta gaitasun-probaz gain, noiz hartzen dira kontuan merezimenduak ?

- a) Oposizioa
- b) Lehiaketa-oposizioa
- c) Lehiaketa

11. Zer adierazten digute plaza-deialdi batean?

- a) Jarraituko den hautaketa-prozesu mota.
- b) Lan Eskaintza Publikora aurkezteko bete behar dituzun baldintzak.
- c) "A" zein "B" aukerak zuzenak dira.

12. Nork parte har dezake Donostiako Udalaren oposizio batean?

- a) Udalerriko edozein pertsonaK
- b) Lan egiteko adinean dagoen edonork, hala nahi badu eta eskatutako baldintzak betetzen baditu.
- c) Prestakuntza-maila duen edozein pertsonak.

13. Aukera hauetatik, zein EZ da enplegatu publikoen jokabide-printzipioa?

- a) Herritarrei informazioa ematea jakiteko eskubidea duten gaiei buruz.
- b) Prestakuntza jasotzen jarraitzea Lanerako gaitasunak hobetzeko
- c) Langile bati arrazoi pertsonalengatik mehatxu egiteko keinuak egitea.

14. Arduraz jokatzek zer esan nahi du?

a) Gauzak kontuz eta ahalik eta lasterren egitea.

b) Laneko materialak ondo zaintzea.

c) Nahitaezkoa ez den akats txiki bat egitea.

15. Donostiako bizilagunek euskaraz artatzeko eskubidea al dute?

a) Bai, gure lurraldean euskara eta gaztelania baitira hizkuntza ofizialak.

b) Ez, arreta ematen dion langileak euskara jakitearen mende dago.

c) Ez, Donostiako bizilagun guztiek euskaraz eta gaztelaniaz zuzen komunikatzen baitakite.